

Kalean lgetan

2019ko urria, azaroa eta abendua.

- Txostena -



Aurkibidea:

Aurkezpena.....	2
Helburuak.....	5
Metodologia.....	6
Aurrekontua.....	9
Banatutako materialak.....	12
Jasotako datuak.....	17
Balorazioa.....	19
Argazkiak.....	21

Kalean Olgetan 2019

Aurkezpena:

Egitasmoaren izena:

Kalean Olgetan 2019 - 2017ko "Kalean Olgetan 2017 – egitasmo pilotua"ren eta Kalean Olgetan 2018ren jarraipena.

Erakunde bultzatzaileak:

Gernika-Lumoko Udalaren Euskara Arloa eta Urdaibai Kulturazko, Aisialdiko eta Kirol Elkartea URE.

Erakunde gauzatzailea:

Ehunzango Jolasak, Urdaibai Kulturazko, Aisialdiko eta Kirol Elkartea UREren Aisialdi Arloa.

Proiektuaren kokapena:

Gernika-Lumo (Bizkaia).

Garapenaren noiztik-norakoa eta ordutegia:

27 jardunaldi. 2019ko urriaren 09tik- abenduaren 06ra asteazken, ostegun eta ostiraletan, arratsaldeko 17:00tik 19:00ra.

Hartzaileak:

Gernika-Lumoko 3-12 urte bitarteko ume, gaztetxo eta beraien arduradunak.

Zuzeneko onuradunak:

Gernika-Lumoko ume, gaztetxo eta familiak orokorrean.

Giza baliabideak:

Bi/hiru begirale eta koordinatzaile bat.

Plaza ezberdinetara joatean egindakoa:

- Ume eta gazteentzako euskal musikarekin plazaren gunek bat girotu eta mikroarekin argibideak eman.
- Jolas-kutxako materialak banatu eta jaso.
- Ume eta gurasoei eguneko jolasen jarraibideen orriak banatu. Asmoa, egitasmoaren aurkezpen labur bat egiteaz gain, eguneko jolas bi aurkeztea izan da. Bata jolas-kutxako jolas edo jostailu baten aurkezpena eta bestea ume edo/eta gaztetxoek elkarrekin jolasteko jolas bat aurkeztea izan da.
- Euskaraldia egitasmoaren berri eman, izena emateko fitxen banaketa eta jasotzeko hautetsontzia.
- Jolasak dinamizatu.
- Argibideak eman.
- Jolas-Kutxaren erabileraren azterketa kuantitatiboa.

Jendaurrearekiko azalpena:


Plazan emandako egitasmoaren azalpentxoak.

- Kanean Olgetan umeek elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- 3-12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzendua. 3-6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urtetik aurrerakoak beraien kabuz moldatuko dira.
- Bi orduko saioan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatuko dira. Jolasa jaso eta itzultzerakoan izen-abizenak eta adina eman beharko dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatuko den egitasmoa da.

Jolas-kutxako materialak zeintzuk izan dira:

Animalien Puzzleak, Antzara-jokoa, Arrautza-lasterketa, Frisbee, Golf, Hankapaluak, Hankapotoak, Klarionak, Kono-batze-lasterketa, Mölky, Partxisa, Pilotak, Puxtarriak, Sokasaltoak, Tortolosak, Twisterra, Txapak, Uztaiak, Yo-Yoa, Ziba.

Egitasmoaren logoa:



Egitasmoan erabilitako espazioak:

- Pasilekua: Futbol Kantxa. Euriarekin arkupean.
- San Kristobal Plaza. Euriarekin etxebizitzetako etarte zabaletan.
- San Juan Ibarra Plaza. Euriarekin Merkatu Plazan.

27 jardunaldien egutegia:

Urria:						
7	8	09 San Kristobal	10 San Juan Ibarra	11 Pasilekua	12	13
14	15	16 Pasilekua	17 San Kristobal	18 San Juan Ibarra	19	20
21	22	23 San Juan Ibarra	24 Pasilekua	25 San Kristobal	26	27
Azaroa:						
		30 San Kristobal	31 San Juan Ibarra	1 Pasilekua	2	3
4	5	6 Pasilekua	7 San Kristobal	8 San Juan Ibarra	09	10
11	12	13 San Juan Ibarra	14 Pasilekua	15 San Kristobal	16	17
18	19	20 San Kristobal	21 San Juan Ibarra	22 Pasilekua	23	24
25	26	27 Pasilekua	28 San Kristobal	29 San Juan Ibarra	30	01
Abendua:						
2	3 EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA	4 San Juan Ibarra	5 Pasilekua	6 San Kristobal	7	8

Helburuak:

Kalean Olgetan 2019 egitasmoaren zuzeneko eta zeharkako helburuak ondorengoak izan dira:

Egitasmoaren zuzeneko helburuak:

- Kalean Olgetan 2019, gurasoak, umeak eta gaztetxoak, plaza eta parkeetan, elkarrekin jolasten jartzea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- Euskararen normaltasunaren aldeko inferentzia ez zuzena egitea. Eta ez ume eta gaztetxoen artean bakarrik. Baita ama, aita, amona, aitona edo haur horrekin dagoen helduarengan ere. Ezinbesteko baldintza da hori; kontua ez baita haurrak entretenituak edukitzeko tartea izatea, gizartean eragin nahi duen ekintza programa bat izatea baino.

Egitasmoaren zeharkako helburuak:

- Gero eta gutxiago erabiltzen diren eta maila askotan onuragarriak diren jolas tradizionalak edo/eta “betiko” jolasak, giro euskaldun baten barruan, berreskuratzea, erakustea eta erabiltzea.
- Kaleetan eta parkeetan euskararen erabilera handitzea.
- Familiei, umei eta gaztetxoei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea.
- Familiak, umeak eta gaztetxoak euskararen inguruan biltzeko gunea sortzea.
- Herriko jolasguneetan euskararen presentzia areagotzea.

Jolas-dinamizazioen asmoa haurrak eta gaztetxoak hezkuntza ez formaleko eta aisialdiko hainbat gaietan trebatzea da, beraz, euskarak aisialdian eta kalean ere lehen lerroko lekua izatea gure helburua ere bada.

Metodologia:

Kalean Olgetan 2019 egitasmoaren metodologia, Kalean Olgetan 2017 - Egitasmo pilotuaren eta Kalean Olgetan 2018 egitasmoaren metodologiaren jarraipena izan da, hau da, Kalean Olgetan 2017 eta 2018ren osteko laugarren fasea: Egitasmoaren egonkortzea.

Kalean Olgetan 2017 eta 2018 kaleratzeko, oinarri metodologikoaren hiru faseak ondorengoak izan ziren.

Lehen fasea: oinarrizko azterketa.

2016ko Euskararen erabileraren kale neurketaren datuen irakurketa eta baita horien inguruko balorazioa eta gogoeta ere egin zen.

Azterketa hori, lehenik, Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzuak egin zuen eta ume, gaztetxo eta parkeetan jasotako emaitzei neurri batean erantzuna emateko asmoarekin URE Elkartearekin 2017ko martxotik aurrera elkarkidetzan haritu zen egitasmoari forma emanez.

Gernika-Lumoko Udalaren Gazteria Arloarekin ere batzarrak egin ziren, egitasmoa, aurreikusi bezala, emaitza onak emanez gero, 2018ra begira eta aurrerantzean egitasmoa aurrera ateratzeko Euskara arloaz gain, Gazteria Arloaren laguntza izateko konpromezua lortuz.

2017ko maiatza eta ekainean egitasmo pilotua non garatzeko parkeen, erabiltzaileen adin tarteak, kopuruak, espazioen segurtasuna, espazioen egokitasuna eta egun egokienak zeintzuk diren aztertu zen: Malosteko Parkean, Pasealekuan, San Juan Ibarra Plazan, San Kristobal Plazan, Santa Luziako Parkean eta Lorategietako Pistetan.

Jasotako datuak eta irudiak aztertu ostean baliabideen optimizaziorako proposena egitasmoa, 17:00-19:00 ordutegian, asteazken, ostegun eta ostiralean tartekatuz Pasealekua, San Juan Ibarra eta San Kristobal Plazetan aurrera eramatea erabaki zen. Eguraldiarekiko alternatibak ere oso kontutan hartuak izan ziren.

Bigarren fasea: materialen aukeraketa eta prestaketa.

Bigarren fasean 2017ko udaldiko oporraldiaren ostean, URE taldeak adin ezberdinetarako Jolas-Kutxa osatu duten elementuak hala-nola

Jolas Kutxaren diseinua, informazioa jasotzeko fitxak, erabiltzaileen artean eta inguruan banatzeko Jolas-Fitxak, egon ez diren kasuetan jolasen arauak euskaraz prestatzen, eta abar haritu da.



Hirugarren fasea: egitasmoa plazaratzea.

Hirugarren fasean, aurreko urratsen emaitza eskuartearen gurela, egitasmoa plazaratu zen. 21 jardunaldi. 2017ko urriak 18tik- abenduak 01era asteazken, ostegun eta ostiraletan, arratsaldeko 17:00tik 19:00ra.

Ekintzak noiz eta non egingo ziren ez zen aurretiaz zabaldu, plazetako ohiko erabiltzaileen migratziarik ez sortzeko eta ahal bezain zeharkako modu ez inbaditzailean jokatzeko asmoarekin.

Aurrekontua:

Kalean Olgetan 2019 Egitasmo aurrekontua ondorengo izan da:

Egitasmo honen aurrekontua 6.000€ da, ondorengo kalkuluei jarraituz:

- Begiraleak, koordinazioa eta antolaketa lanak (170€ x 29 ekintza egun)..... 4.930€
- Jolas Kutxarako materialak 300€
- Girotzako soinu ekipoa mantenua 250€
- Ekintza egunetan banatzeko informazio orriak, informazio kartelak, plastifikazioak eta fitxak 450€

Banatu materialak:

Eguneko Jolas-Fitxak:

- Jolas-Fitxa 4 osagai dituen alde bietatik inprimatutakoa A5 tamainuko orri bildumagarri bat da.
- Aurreko aurpegian Klean Olgetan logoa, Klean Olgetan egitasmoaren azalpentxo bat eta lagunekin jolasteko eguneko proposamenak daude.
- Atzeko aurpegian Jolas-kutxako jolas baten aurkezpena dago.
- Astero plaza bakoitzean Jolas-Fitxa bat banatu da.
- Guztira 7 jolas-fitxa izan dira.
- Fitxa bakoitzeko 200 ale banatu dira partaideen eta ingurutik zebilen jendearen artean.
- Fitxetarako erabilitako papera %100 zuntz birziklatuz egindako papera izan da.
- Jolas-Fitxak euskara hutsean argitaratu dira.



- Klean Olgetan umek elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- 3-12 urte bitarteko ume eta gaztekoel zuzendua. 3-6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urtetik aurrerakoak beraien kabuz moldatuko dira.
- Bi orduko saioan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatuko dira. Jolasa jaso eta itzultzera izen-abizenak eta adina eman beharko dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatuko den egitasmoa da.

Lagunekin jolasteko eguneko proposamena:

HITZ SORGINDUAK

Hasteko zozketa egin behar da bete nor izango den aukeratzeko. "Bete" egokitu zaien laguna "sorgina" izango da eta beste gutxiak esertzeko toki bat blatu dute jolastokian. Jolaskide bakoitzak bere eserlekua izango du.

Umek biribila osatuko dute eta bata bestearen atzetik poliki-poliki ibiliko dira. Sorginak kanta magikoa abestu behar du. Nahi dituen hitz gutxiak sartzen ditu, batere loturarik gabe: mahala, zezena, oloa, teiminia... Baina, "errata" hitza alperu gabe.

Sorginak "errata" esaten duenean, ume bakoitzak bere eserlekura joan beharko du esertzera. Eseri aurretik sorgina umeren bat harrapatzen salatuko da. Inor harrapatzea lortzen badi, jolasa hasieratik errepikatuko da, baina harrapatutako umea izango da sorgina. Ez badu arapatzen, berri ere sorgin berberak errepikatuko du.

Jolasa zailagoa izan dadin, nahi izanez gero, bi hitz sorgindu erabiltzeko ditugu. Orain, lehenengoaz aparte, "igela" entzutean makurtu egin beharko dute, adibidez. Hitzak zenbat eta askarrago esan, hainbat eta zailagoa egingo zaie. Gainera, hitz sorginduen antzekoak (hondartza, arrantza, arroza...) erabili ditzakegu, jolaskideak nahasteko.

ONDO PASA!



SOKAREKIN SOKASALTOAN – AITA, AMA...

SARRERA

Sokasalto soka batez banaka edo haur batzuk batera jolasten den haur-jolas bat da. Kirola ere bada. Kirol batzuetarako entrenamendu bezala ere erabili ohi da, adibidez: boxeoa, tenisa, kulturismoa...

Sokarekin arketak beste kirol batzuen aurreko beroketa bezala erabili ohi dira, eta indarra, koordinazioa eta erimosa eskatzen dituzten kiroltarako oso onak dira. Sokarekin saltoak muskulua gogortu eta beraien ehundurak beritzen ditu, eta baita egokitzat hartzen dira ere bihotzerako eta birketarako.

Soka saltok jolasteko era asko dago. Banaka jolasten denean, haurrak soka bi muturretatik eskutik hartu eta jirabiran jartzen du, bere buru gainetik eta salto eginez oin azpitik behin eta berri pasatuz. Hiru edo gehiago dabilzanean, bi haurrek mutur banatik hartu eta jirabiran jartzen dute soka, orduan hirugarren haur batek salto egiten du behin eta berri soka oin paretik igarotzen denean.

INFORMAZIO OROKORRA:

Jolasaren helburua:

Jirabiran dagoen soka ukitu gabe honek sortzen duen eremuaren barruan salto egitea.

Edukia:

- Soka.
- Informazio orria.

Irakokitako adina: 6 urtetik aurrera.

Jokalariak: hiru edo gehiago.

Arasak:

Hasi aurretik.

- Sokari biraka arituko diren lagun bi aukeratu dira.
- Bi ume hauen soka mutur banatik hartu eta jirabiran jarriko dute.
- Besteak sokari biraka dabilzanean baten ondoan lehen jarriko dira sokasaltoan sartzeko.

Jolasaren garapena:

- Hirugarren ume batek salto egiten du behin eta berri soka oin paretik igarotzen denean.
- Hiru ume baino gehiago direnean soka saltoan jolasten dutenak, saltariak ilaran jarri eta soka saltoan egin ostean, ilarara itzultzen dira. Estropezu egin edo puntua galtean sokari jirabiran eragin behar dio hurrena.
- Soka saltoa, ustez umeren "ezkon adina" ematen duen "Aita, ama" kanta, guttien artean abestuz, egingo da:

Aita, ama zenbat urtekin ezkonduko naiz
txiki naiz eta ez dukit,
1,2,3,4, ...



Kalean Olgetan

- Kalean Olgetan umeek elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- 3-12 urte bitarteko ume eta gaztetxoek zuzendua. 3-6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urtetik aurrerakoak beraien kabuz moldatuko dira.
- Bi orduko saioan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatuko dira. Jolasa jaso eta itzultzerakoan izen-abizenak eta adina eman beharko dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatuko den egitasmoa da.

Lagunekin jolasteko eguneko proposamena:

ASTO-HITZ

Jokalarien artean zoketa egin eta "astor" "astoxina" askeratuko ditugu. Askeratuak izan ez diren jokalariek ilaran jarriko dira.

Astoxinak eta astoak izen multzo bat askeratuko dute eta ezan esango dute zein den. Adibide: ZURBIAITZAK. Guinera, esan daitzekoen zabaliz gutien artean bi askeratuko dituzte baina beste jokalariei esan gabe. Adibide: Pissu, eta Hiritzu. Bi hitz hauek hitz debekatua izango dira.

Taldeak askeratu ondoren, asto agitariaren magalean makurtuta jarriko da eta lerroan dauden lagunek hasun-banetan bere gainean salto egingo dute. Salto egiteko garaian askeratutako izen multzoak izen baina esan beharko du jokalarik bakoitzak. Gure adibidean, zabaliz izenak esan beharko dituzte: Pagos, Ametas, Urkia, Lizarra, Ekharra, Altoa, Artea, Izela, ...

Ezin dira izenak errepikatu. Norbaitek aurretik esandako izen bat errepikatuz gero, astoarena egingen jarri beharko da. Gurea bera gertatuko da salto egitea egokitzen zailen batek "hitz debekatua" esaten bada. Gure adibidean, Pissu edo Hiritzu esaten bada, albiga.

Jolasa behin eta berriro errepikatzen da haren batek huts egin arte. Hala da, denek salto baina egin dutean, berriro hasiko dira salto egingen. Norbaitek huts egingen denean, erdura arte asto zena astoxina izango da, eta astoaren papera betetzen jarriko da huts egin duena.

Txanda bakoitzeko askeratutako izen multzoa (TXORIAK, MENDIAK, KOLOREAK, FRUTAK...) eta "hitz debekatua" aldatuko ditugu.

Hitz debekatutak gabe ere jolas daiteke. Kasu horretan, ez da behar astoxinak. Asteak hitz multzo bat aipatuko da eta salto egingen dutenak hitzak esan beharko dituzte. Ezin dira hitzak errepikatu eta ezker egin behar da salto, pentateko denborarik hartu ez. Huts egingen duenak astoaren papera betetako da.

ONDO PASA!



Kalean Olgetan

- Kalean Olgetan umeek elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- 3-12 urte bitarteko ume eta gaztetxoek zuzendua. 3-6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urtetik aurrerakoak beraien kabuz moldatuko dira.
- Bi orduko saioan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatuko dira. Jolasa jaso eta itzultzerakoan izen-abizenak eta adina eman beharko dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatuko den egitasmoa da.

Lagunekin jolasteko eguneko proposamena:

BAT BI HIRU KARABIN-BON-BAN

Jolasari hasiera eman aurretik, zotz egiteko jolas baten bidez askeratuko da hormakoez nor izango den. Jokalari hori horma baten kontra jarriko da, besoekin begiak estaltita. Beste jokalariek gutxiak hormatik hamar bat metrora jarriko dira jolasa hasteko. Horien helburua hormaraino iristea izango da.

Hormak dagoenak "bat, bi, hiru, karabin-bon-ban" esango du eta bira emango du beste jokalariei begiratzeko. Beste gutxiak aurrera mugituko dira, hormako jokalariek "bat, bi, hiru, karabin-bon-ban" esaten duen bitartean. Baina esaldia bukatutakoan gelditu egin beharko dira, hormak dagoenak mugitzen ikus ez dituzan. Mugitzen ikusiz gero atzera itzuli beharko dute. Paretara iritsitakoan "txorizoi" esan beharko dute, eta paretatik urkitu.

Denak paretaraino iritsi direnean, hormak dagoenari hantzetatik helduko diote. Horrek "txorizoi" esango du eta hori entzundakoa beste gutxiak korrika alde egingo dute. Bidean bete denak norbait harrapatuko bala, azken hori hormakoa izango da hurrengo txandan.

Jolas hau euskara lantzeko erabili daiteke. Hurretarako, paretan dagoen lagunak norbait mugitzen ikusiz gero, atzera bidaltzeko ezingo du jokalarik horren izena esan. Beraz, jokalarien deskribapena egin beharko du: "ile horia duen mutila", "praka zuria eta zapata gorriak dituen neska"...

ONDO PASA!



MÖLKKY

HISTORIA

Mölkky 1996an Lahden Paikka companyk asmatutako jatorri finlandiarreko traketaren jolasa da. Jolas hau, zur-pieza zilindrikoekin, eremu zabal batean jolasten da.



Nahiz eta milimetro gutxi batzuk aldatu, luera neuririk ohikoenak mölkkyyentzako 225 mm eta birbirtzeko 150 mm dira. Pieza guttien diametroa 55 mm da.

Mölkky-a kyykkä Finlandiako Karelia aldeko biria-joko tradizionalaren bertsio modernoa da. Era individualen edo taldeko jolasten da, jokalaritza onartuz.

Jolasaren helburua:

Mölkky jauntakita 50 puntu lortzea.

Edukia:

- 1etik 12ra zenbakitutako oinarri laua, forma zilindrikoa eta 45°ko punta duten zureko 12 biria.
- Albo birtan 90°ra moztutako makila edo "mölkkä" zilindriko handiago bat.
- Informazio orria.

Irakokitako adina: 7 urtetik Aurrera.

Jokalariek: bi edo gehiago. (Banan-banaka edo taldeko ere jolatu daiteke).

Araua:

Jolasaren hasiera.

- Partida hasieran birak, beraien zenbakiak kontutan izanik, goiko inudian bezala jarriko dira.

Jolasaren garapena:

- Biriak mölkkyya puntuak lortzeko jauntkitzen den tokitik 3-4 metroara zutik egongo dira.
- Lumera botatzen diren birien arabera puntuak lortzen dira (2-12 bitartean) baldin eta biria bat baino gehiago botatzen bada. Lumera biria bakar botatzen bada honek idatzita daraman (1-12 bitarteko) zenbakiaren puntuak lortzen dira.
- Biria bat lumera botatzen denean, hurrengo jokalarientzat, erori den tokian zutik jartzen da. Hurrengo birak sakabanatuz eta jolas eremua hasierako antolamendutik zabalduz joango da.
- Jokalariek jauntkitzen tartekatzen joango dira. Txanda bakoitzeko jokalarik bakoitzak baten jauntkitu du mölkkyya.
- Jokalariren batek 3 txanda jaraman ez bada punturik lortzen kanporatua izango da.

Jolasaren bukatzea:

- 50 puntutara dol-dei heltzen den lehenengoak irabazten du. Jokalarik batek bere azken jauntkitarekin 50 puntuak gainditzen baditu bere puntutaria 25 puntu izatera itzuliko da.



TWISTER (Bihurtzailea)

HISTORIA

1966an Charles E. Foley eta Neal Rabensek asmatu eta Milton Bradleyk argitaratutako jolasa da.

Twistera izan zen lehen mahai-jolasa non piezak jokalariek beriek ziren.

INFORMAZIO OROKORRA:

Jolasaren helburua:

Helburua, zoruak urkitu gabe, eskua edo/eta oina esandako kolorean jartzea da.

Edukia:

- 4 koloreko 34 puntuko osatutako plastikokoak izara handia.
- 4 koadrante eta 36 puntuko osatutako eremua. Koadrante bakoitzak kolore zehatz batetik 4 puntu ditu: berdea, horia, urdina eta gorria. Koadrante bakoitzak eskulneko edo eukerako oin edo esku bati dagokio.
- Informazio orria.

Irakokitako adina: 6 urtetik Aurrera.

Jokalariek: bi, hiru edo lau.

Araua:

Hasi aurretik.

- Jokalarientako bat epailea izango da. Honek eremutik mugituko du eta noren txanda den zehaztuko du. Eremutik azalera lehen baten jartze behar du.
- Beste jokalariek oinetakok kendu eta honela jartze behar du:
 - Bi jokalarik: Bata bestearen aurrean koadrante mutur estuenean oin bat puntu urdinean eta besteak puntu horian.
 - Hiru jokalarik: Jokalarik bi aurretik azaldu den bezala eta hirugarrenak bere oinak erdiko zirkulo gorri birtan jarriko ditu.
 - Lau jokalarik: Lau jokalariek aurretik aurre jartzen dira Twister hitza jartzen duen aldeetan. Bi taldeetan jokatu daiteke.

Jolasaren garapena:

- Epaileak eremutik mugitzen du eta ezan dio mugitu behar den muturra (eskuineko edo ezkerreko oina edo eskuak) eta zein kolorearen gainean jartze behar duen. Adibide: eskulneko eskua urdinean.
- Jokalariek gutxiak epaileak esandako mutura esandako puntura mugitu behar dute. Ezingo da jada okupatuta dagoen puntura mugitu.
- Bi jokalarik puntu berera mugitzen badira arbitroak norena den erabakitzen du. Besteak beste puntu libre bat blatu behar du.
- Behin mutur bat puntuan jartzen denean ezingo du mugitu behar beretik.

Jolasaren bukatzea:

- Jokoa jokalariren batek zoru urkitu edo erori arte jarraitzen du. Bi jokalariren arteko joko bat bada. Gertatzen den jokalariek irabazten du.
- Jokoa bi jokalarik baino gehiagoren artean bada jokalariek kanporatzen joango dira solik bat zutik gertatu arte. Hau irabazlea izango litzateke.



Kalean Olgetan

- Kalean Olgetan umeez elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- 3-12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzendua. 3-6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urtetik aurrerakoak beraiekin kabuz moldatuko dira.
- Bi orduko saioan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatuko dira. Jolasa jaso eta itzultzerakoan izen-abizenak eta adina eman beharko dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatuko den egitasmoa da.

Lagunekin jolasteko eguneko proposamena:

ASTEKO EGUNAK (BALOIAREKIN)

Jokalari gutxiak izan jarriko dira bata bestearen atzetan. Ixan lehenengo dagoenak baloiak eskuan edukiko du.

Umeek ateko egunak banan-banan esan beharko dituzte; egun bakoitza esatean, baloi alerra bota eta ateko jokalariek hartu egin beharko du. Egun bakoitzari baloi botatzeko eta hartzeko arau bereziak dagozkie, ordea:

ASTELEHENA: lehenengo jokalariek baloi paretaren kontra botako du eta bere atzetan dagoen jokalariek, hau da, larreak bigarrenak, baloi alerra hartu beharko du.

ASTEARTIA: bigarren jokalariek baloi paretaren kontra botako du eta bere atzetan dagoen jokalariek lurrean bote eman ondoren hartu beharko du baloiak.

ASTEAZKENA: hirugarren jokalariek baloi lurrean botako du eta bere atzetan dagoen jokalariek lurrean bote eman ondoren hartu beharko du baloiak.

OSTEGUNA: laugarren jokalariek baloi paretaren kontra botako du, lurrean botea emango du eta bere atzetan dagoen jokalariek alerra hartu beharko du baloiak.

OSTIRALA: bosgarren jokalariek baloi alerra botako du eta bere atzetan dagoen jokalariek alerra hartu beharko du.

LARUNBATA: zigarren jokalariek baloi paretaren kontra botako du eta bere atzetan dagoen jokalariek txalo jo eta baloi alerra hartu beharko du.

IGANDEA: zazpigarren jokalariek baloi paretaren kontra botako du eta bere atzetan dagoen zortzigarren jokalariek bi txalo jo eta alerra hartu beharko du baloiak.

Gauza bera egin beharko litzateke norbaitek huts egin arte.

Asteko egunen ordenari jarraitu gabe ere jolas daiteke. Jolasa bizilagotzeko jokalariek bakoitzak nahi duen ateko eguna esango du eta egun hori baloi botatzeko dagoen modua beteko du. Hortaz, ateko jokalariek adin egun bakoitza baloi era egokian hartuko.

ONDO PASA!



ANIMALIEN PUZZLEAK

PUZZLEEN HISTORIA

1760an John Spillburyk, mapa-diseinari buruko aditua, lehenengo puzzleak eratu zituen. Hau bere buruak mapa antzakoak berraztertzea, herrietako mugak inguratu eta egur taula baten gainean prestatzeko erabili zuen. Horrela izan zen, lehenengo puzzlea, buru-hauek inguratu zituen.

Animalien puzzleak hainbat urte geroago sortu ziren. Lehenengo puzzleak 1820an inguru arte iratu ziren.



Haurren adinaren arabera puzzleen tamaina gida:

ADINA	PIEZA KOPURUA
0-2 urte	4/6 pieza puzzlea
2-3 urte	6/12 pieza puzzlea
3-5 urte	12/24/36/48 pieza puzzlea
5-6 urte	50/60/100 pieza puzzlea
6-11 urte	100/150/200 pieza puzzlea
+12 urte	250/400 pieza puzzlea

INFORMAZIO OROKORRA:

Jolasaren helburua:

Helburua hasierako irudia berriz osatzea da.

Edukia:

- 9 pieza irudi bi: ahate eta txakurra.
- 12 pieza irudi bi: txerria eta ardia.
- 15 pieza irudi bi: antza eta behia.
- Informazio orria.

Jokalariek: puzzle bakoitzeko haur bat.

Animalien puzzle hauen iradokitzako adina: 3 urtetik aurrera.

Jolasaren garapena:

- Piezak dagoen tokian elkar lotu behar dira hasierako irudia berriz osatzeko helburuarekin.

Jolasaren bukaera:

- Hasierako irudia berriz osatzen bukatzen da.



Kalean Olgetan

- Kalean Olgetan umeez elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- 3-12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzendua. 3-6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urtetik aurrerakoak beraiekin kabuz moldatuko dira.
- Bi orduko saioan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatuko dira. Jolasa jaso eta itzultzerakoan izen-abizenak eta adina eman beharko dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatuko den egitasmoa da.

Lagunekin jolasteko eguneko proposamena:

AZERIAK, OILOAK ETA SUGEAK

Hiru talde egingo dira (azeriak, oiloak eta sugeak) eta denen artean jolas eremu bat mugatuko da. Eremu horretan talde bakoitzak etxea non duen erabakiko du. Taldeak bereizteko koloretako zapiak erabili daitezke.

Jolas eremu hori errespetatuz, talde bakoitzak beste talde bateko jokalariek harrapatu beharko ditu:

- Azeriek oiloak harrapatu behar dituzte, eta azerien etxera eramane. Bertan atxilotuta geratzeko dira.
- Oiloek sugeak harrapatu behar dituzte, eta oiloen etxera atxilotuta eramane.
- Sugeek azeriak harrapatu behar dituzte, eta beraiekin etxera eramane.

Atxilotuta daudenak askatzeko, libre den taldekide batek atxilotuta dauden tokira sartu beharko du.

Animalia bakoitza bere etxera sartuz gero, besteek ezin dute harrapatu.

Jokoa talde bakarra geratzen denean bukatzen da.

Azeri, unxi eta belarrenekin ere jolatu daiteke. Aldera honetan, belarra direnak geldirik daude eta unxiak baino gehiago dira. Unxiak ere azeriak baino gehiago dira. Unxi batek belarra harrapatzen duenean, belarra unxi biltzen da. Azeri batek unxi bat harrapatzen bada, unxiak azeri biltzen da. Komeni da oso azeri gutxi egotea eta lagun asko belar izatea. Jolasa zailago izateko, hiru unxiak eskutik helduz gero azeriak harrapa ditzaketela erabaki daiteke.

ONDO PASA!



ANTZARA JOLASA

HISTORIA

Antzara-jokoa gelasko segida batean zehar piezak mugitzen dituen taula-joko bat da, mugimenduak dardak erakusten dituen puntu kopuruari jarraiki egiten direla.

Jokoa bere jatorriko bertsioan XVI. mendean sortu zen eta XIX. mendean bukaera zabaldu zen publikoaren artean. Geroztik, aldaera ugari izan dituen jokoa da, irudi-tematika ezberdinekin, hala nola historia, kirolak, zientzia eta ingurumena.

INFORMAZIO OROKORRA:

Jolasaren helburua:

Norberaren fitxa azken gelaskara eramaten lehena izatea da.

Edukia:

- 63 gelaskadun lauki handia.
- Koloretako lau pieza.
- Dardoa.
- Informazio orria.

Jokalariek: bi, hiru edo lau.

Iradokitzako adina: 5 urtetik aurrera.

Jolasaren garapena:

- Bi jokalariek edo gehiago har dezakete parte, bakoitza kolore ezberdineko piezekin eta txandaka piezak mugituz.
- Helburua bere piezak azken gelaskara eramaten dituen lehena izatea da.
- Gurtira irudiak agertzen dituzten 63 gelaska daude; tarteka, antzarak agertzen dituzten gelaskak daude eta bertara helduz gero, antzara duen hurrengo gelaskara egiten da jauzi eta berriz ere dardak botatzeko aukera ematen da, "antzarak antzara, neuz berriro jokora" edo antzeko esaldiak aipatuz, jokozko izena ematen dionak.
- Helburuak irabazteko zehar besteak beste irudiak dituzten gelaskak badaude: zubiak, jauziak egiteko aukera ematen dutenak; putzuak, non beste jokalariek bat bertatik pasa arte ezin den bertatik ateratzeko; gartelak, non txanda kopuru bat gaitzen den; dardak, non dardak berriz ere botatzen diren edota heriotza, non abiapuntura itzuli behar den.



Jasotako datuen laburpena:

- 27 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira..... 2.619.
- 27 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa.....97,00.
- <3 urteko 27 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira..... 66.
- <3 urteko 27 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa..... 2,53.
- 3-6 urteko 27 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira..... 1.461.
- 3-6 urteko 27 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa....55,78.
- 7-9 urteko 27 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira..... 1.011.
- 7-9 urteko 27 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa....38,60.
- 10-12 urteko 27 ekintza egunetako erabiltzaileak guztira..... 81.
- 10-12 urteko 27 ekintza egunetako erabiltzaileen batezbestekoa...3,09.

Balorazioa:

Balorazio labur bat egiterako orduan esan beharra dugu, oso pozik gaudela 2019. urte honetako Klean Olgetan Egitasmoaren emaitzarekin.

Klean Olgetan 2019 egitasmoa, gurasoak, umeak eta gaztetxoak, plaza eta parkeetan, elkarrekin jolasten jartzea bultzatzea helburu izan duen egitasmoa izan da. Gure ustez helburua guztiz bete da. Gurasoen aldetik ere konpromisoa nabaritu da, ekintzetan beti parte hartzeko prest egon direlako. Erabilitako baliabideak ere egokiak izan dira eta horrek helburuak betetzeari nabarmen lagundu dio.

Euskararen normaltasunaren aldeko inferentzia ez zuzena egitea eta ez ume eta gaztetxoaren artean bakarrik, baita ama, aita, amona, aitona

edo haur horrekin dagoen helduarengan ere egiteari dagokionez, plazetan giro euskalduna sortuta, euskara hutsean banatutako fitxak eta euskaraz emandako azalpenekin era positiboan zabal eragin dela azpimarra dezakegu.

Euskararen normalizazioari eta erabileraren sustapenari dagokionez, egin den guztia euskaraz garatu da, horrela, guk izan dugun helburu garrantzitsuenetako bat beteaz.

Antolaketa mailan, elkartearen barne antolakuntzan ez dugu arazorik izan. Batetik, programatutako eginbeharrak aurretiaz adostutako epeetarako bete dira, eta bestetik, materialak eta erosketak sasoiz heldu dira.

Begiraleek beraien eginkizuna garatzerako orduan ez dute arazorik izan, giro on eta alaia medio, parte hartzaileak une oro txandak errespetatu eta jolas giroan murgildu direlako. Aipatzeko San Juan Ibarra Plazako ekintzetan 3. begirale bat jarri dela erabiltzaileen bolumenagatik.

Froga pilotua ume, guraso eta gaztetxo gehien batzen diren plazetan egite ere ondo ikusi dugu. Hau frogarako izan bada ere etorkizunean gune gehiagotara zabaltzea ondo legokeela ikusten dugu. Ekintzetako partaidetza oso altua izan da %80an aurreikuspenak aski gaituz (50 erabiltzaile gutxienez) eta %20 horretan, argi eta garbi ikusi da, arrazoia eguraldi txarraren eraginagatik izan dela. Ekintza guztietan egon den giroa oso ona izan da, bai elkarteko kide, guraso, ume zein

gaztetxoan artean. Egitasmoa dela eta guraso askoren zorionak eta egitasmoarekin aurrera egiteko eskariak ere jaso ditugu.

Bai partaidetza, zein erabilitako metodologiatik jasotako emaitza onak etorkizunerako kontutan hartzekoak dira.

Aipatzeko puntuak:

- Egitasmoak heldu, ume eta gaztetxoan artean harrera oso ona izan du.
- Orokorrean heldu, ume eta gaztetxoan artean partaidetza oso altua izan da.
- Jolasguneetan euskararen normaltasunaren aldeko inferentzia ez zuzena egiteko zeharkako tresna eraginkor eta egokia dela argi eta garbi ikusi da.

Argazkiak:

Oharra: ondorengo argazkiak Kalean Olgetan 2019 egitasmoan jasotakoak dira. Argazki hauek Kalean Olgetan 2019 egitasmoko txostenerako bakarrik erabiliko dira eta horrela, Urdaibai Kulturazko, Aisialdiko eta Kirol Elkartea UREk Gernika-Lumoko Udalaren Euskara Arloaren zaintzapean uzten ditu.













